

**ENOCen adierazpena Ukrainan haurren eta nerabeen eskubideak babesteko
premiazko ekintza bat eskatzeko
2022ko otsailaren 28a**

Haurren Defentsarako Europako Sareak (ENOC) kezka larria adierazi du Ukrainan hasi berri den gerra suntsitzaileak harrapatu dituen haurren eta nerabeen segurtasuna eta ongizatea dela eta. Ukrainako Parlamentuko Giza Eskubideen komisarioari babesa eta elkartasuna adierazi dio, haurren eta nerabeen giza eskubideak babesteko eta sustatzeko eginkizunean.

Azken zortzi urteetan zehar, Ukrainako Parlamentuko Giza Eskubideen komisarioak etengabe gogorarazi du Ukrainako ekialdeko gatazka armatuak haurren eta nerabeen eskubideak eragiten dituela. Gatazka armatu honek Ukraina osoari eragingo dio eta haurren eta nerabeen egoera ahula larritu besterik ez du egingo. Catherine M. Russell UNICEFeko zuzendari nagusiak hori bera azpimarratu zuen duela gutxi egin zuen adierazpenean¹:

"Gatazkaren azken zortzi urteetan, kalte sakona eta iraunkorra jasan dute ukipen larriaren bi aldeetan dauden haurrek eta nerabeek. Ukrainako haurrek eta nerabeek bakea behar dute orain, inoiz baino gehiago".

Ukrainako Parlamentuko Giza Eskubideen komisarioak azpimarratu du 2014az geroztik gutxi gorabehera 200.000 haur eta neraberen desplazamendua eman dela herrialdearen barruan, eta kopuru horrek nabarmen egingo duela gora datozen egun eta hilabeteetan. Komisarioak gomendio zehatzak egin ditu bermatzeko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean² jasotako eskubideak betetzen direla.

Gatazka armatuek **hautzaroko eta nerabezaroko eskubide guztiak urratzen dituzte**: bizitzeko eskubidea, familia elkartu batean bizitzeko eskubidea, osasuna eta hezkuntza izateko eskubidea, edozein indarkeria edo esplotazio motaren aurka babesteko eskubidea (sexu abusuak barne) eta laguntza humanitaria jasotzeko eskubidea.

Egoeraren larritasuna kontuan izanda, baita haurrak eta nerabeak kaltetzen dituzten biktimei buruzko txostenak daudela aintzat hartuta, ENOC sareak honako hau eskatu nahi du:

- **Errusiak inbasioa berehala gelditzea, haur eta nerabeen bizitza, segurtasuna eta ongizatea babesteko. Errusiak eta Ukrainak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena berretsi duten arren, Ukrainako gobernuak ezin ditu babestu gerra egoeran dauden adingabeen eskubideak;**
- **Gatazkaren parte diren alderdiek ez lukete egin behar haurren bizitza, eskubideak, segurtasuna eta ongizatea arriskuan jartzen duen ekintzarik. Haurrek eta nerabeek eskubidea izaten jarraitu behar dute oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko eta hezkuntza eta haurtzaro segurua izateko.**

- Alde guztiek parte hartzea haurrentzako, nerabeentzako eta behar duten familientzako laguntza humanitarioa behar bezala eta arin iritsiko dela bermatzeko. ENOC sarea eta bere kideak banaka lankidetzan ari dira Ukrainako haur eta gazte ahulenei laguntza eta arreta humanitarioa emateko eskumena duten nazioarteko erakundeekin.
- ENOC sareko kide diren Ukrainiaren inguruko herrialdeek dagoeneko adierazi dute prest daudela herrialde horretako errefuxiatuak hartzeko. ENOC sareko kide diren gainerako herrialdeetako gobernuei eskatu nahi diegu erantzukizunez jokatzeko eta beren mugak zabaltzeko bai haurrei eta nerabeei baita Ukrainatik datozen familia errefuxiatuei ere. Haurrek eta nerabeek bakea eta segurtasuna dira gehien behar behar dutena.

ENOCek azpimarratu du Ukrainako Parlamentuko Giza Eskubideen komisarioak gaitasuna izan behar duela, gatazka armatuak iraun bitartean, haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideen edozein urraketaren berri emateko eta egoera arretaz zaintzen jarraitzeko. Horretaz gain, gatazka armatuko egoera batean eskubide horiek urratzeari buruzko informazio adierazgarria aztertu, jaso eta zabaldu behar du.

Orain da garaia Europako erakunde eta gobernu guztiek batera ardura eta konpromisoa har dezaten Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenari dagokionez, eta erakuts dezaten, aktiboki, haurrak eta nerabeak etsipenezko egoera horretatik babesteko duten erantzukizuna eta borondatea.

Herrialdeok Haurren Defentsarako Erakunde gisa jardungo dugu eta ahaleginak egingo ditugu bermatzeko gure gobernuek konpromiso horiei eutsiko dietela, betiere gure eskumenak kontuan izanda.

Sareak arretaz jardungo du laguntza eta esperientzia eskaintzeko, gure esku dagoen edozein modutan.

[1<https://www.unicef.org/press-releases/statement-unicef-executive-director-catherine-m-russell-children-ukraine>](https://www.unicef.org/press-releases/statement-unicef-executive-director-catherine-m-russell-children-ukraine)

2 heriotzak eta lesioak nabarmendu dituzte, baita [Eskola Seguruen Adierazpenaren](#) garrantzia ere, gatazka armatuetan ikasleak, irakasleak eta hezkuntza erakundeak babesteko gobernu arteko konpromisoa, eta [gatazka armatuetan eskolen eta unibertsitateen erabilera militarra prebenitzeko jarraibideak](#).